

# I. Ikuspuntu historikoa

## Kronika

Justizia eta Burujabetzari buruzko jardunaldi hauetan, gaiaren aurpegi historikoa azaltzeko lehenengo bi hitzaldiak Zuzenbidearen Historiako katedradunak diren Benjamin González Alonsok (Salamanca) eta Gregorio Monreal Ziak (Iruina) eman zituzten.

Sarrera orokor gisa, González Alonso Aintzin Erregimeneko justiziaz mintzatu zitzaigun, berau lege, errege eta Zuzenbidearen artean kokatuz, justizia hiru zutabe hauetan oinarritzen baitzen. Europako kontinentea hartuz, beraz *Common Law* sistema alde batera utzita, G. Alonsok hiru fase bereizi zituen justiziaren garapena aztertzeko, bere ohiko era argi, sakon eta dotorean. Lehendabizikoan, Erromatar Inperioa erori ondoren, Europan, non ohiturazko Zuzenbidea nagusi baitzen garai horretan, justizia landatar eta sakabanatuta agertzen zaigu. Fase horretan, Gaztelan justiziaren honako ezaugarriok izango genituzke: lokala, herrikoa, epailearen erabakimen librean eta tokiz tokiko ohituren interpretazioan oinarritua. Erabakimenezko epaiak (*juicio de albedrío*), euskal lurraldeetan eta Gaztela zaharrean indar propioa hartu bazuen ere, ez zuen Zuzenbide judizial hedatuagoa izateko aukerarik izan. Bere porrota gogorarazi zigun hizlariak, Lalindek bere idatz klasikoan (*La creación del derecho entre los españoles*) hain garbi esandakoa errepikatuz.

Hurrengo faseak, XIII. mendean hasitakoak, erregeak legegintza bere eskuetan hartzean erakusten digu seinalerik garbienetako bat. Gaztelan nabarmena izan zen errege legegileak epaile gorenaren tokia hartzeko eman zuen bultzada, Zuzenbide judiziala geldiaraziz. Erregea legearen sortzailea da, eta epaileari legearen aplikazio soilak dagokio —Furo Real eta Partidetan, XIII. mendean, hain garbi agertzen diren printzipioen arabera—. Horrek, ordea, sare judizial sendoa eskatzen du. Errege legegilea epaile gorenaren izango da, sare horren gailurrean kokatzen dena, jurisdikzioaren iturri eta sortzaile bakar gisara. Erregeak darion jurisdikzioa adar askotan zabaltzen da. Lehenengoan, behetik hasita, auzo-justizia dugu, munizipala, alegia, tokiz tokiko epaileek egikaritzen dutena, bertako era eta moldeak aplikatuz. Jurisdikzio-esparru berezkoa izan arren, epaile horiek beti daude erregearen menpean, alde batetik errege-jurisdikzio iturri horretara itzultzeko bideak ohikotasunez jantzi direlako (modu ordinarriak) eta, edonola ere, beti izango delako zilegi erregearen erabakia eskatzea, suplikazio-helegitea tartekatuz, azken instantzian izango bada ere. Beraz, fase honetan —benetan luzea, ezaugarri orokorrei dagokienez XIII. mendetik XVIII-XIX. mendera arte iraun baitzuen— erregearen eskuetan zegoen azken ebazpena, arbitro gisa beti izaten zuelarik parte hartzeko aukera, auziaren prozesuaren une erabakiorrean bere norabidea kontrolatuz, hala nola eskariak (suplikazio edo azken helegiteak) eman edo ukatuz, edo epaiak berrikusteko aukera irekiz, baita jadanik gauza epaitua zenean ere. Gaztelan, non epaiak motibatu gabe ematen baitziren, ez da harrizkoa prozesuak horrelako ezaugarriak izatea.

Egoera hau XIX. mendean aldatu zen. Aldaketa iraultzailea behar izan zen eskema guztiz berria posible egiteko. Jurisdikzio bakarra, lege bakarra eta kodetua alde batetik, eta botereen arteko banaketa eta epaileen independentzia, bestetik, beharrezkoak ziren epaileak benetan legearen interpretatzaile libreak izan zitezen, legeak zioena modu garbi eta zintzoan deklaratzuz, hau da, arrazoiak objektiboki azalduz. Eraikuntza berriaren gailurrean ez dago erregea, Auzitegi Gorena baizik, azken epaiak emango dituen, behar izanez gero kasazio errekursoaren ondorioz. G. Alonsoren konklusioa garbia izan zen: Aintzin Erregimeneko justizia-administrazioa atzekoz aurrera ipintzea zen helburua. Ez zuen aipatu, ordea, helburu horrek uste baino denbora eta ahalegin handiagoak eskatu zituela.

G. Alonsok egitura historiko orokorra azaldu ondoren, Gregorio Monreal Ziak *Vasconia Iberica*, Ohienartek esango lukeen erara, hartu zuen esparrutzat, eta lurralde horietan justiziaren administrazioaren historiaren deskribapen zabal eta zehatza, benetan trinkoa, egiten asmatu zuen.



Nafarroan, Justiziaren antolakuntzak, erresuma batena izaki, bere erakunde eta organo guztiak antolakuntza beraren barnean izan zituen. Hemen erregea, legea eta Zuzenbideak, justiziaren administrazio heldu eta erabat autonomoa azaltzen digute, jurisdikzioaren maila guztiak erresumaren alorrean egikaritzen direlako, errege beraren itzalean, auzo eta udalerrietatik hasita gorenko auzitegiraino (Corte Mayor), betiere Nafarroako legeen arabera.

Zehaztapen eta bereizi-behar handiagoak eskatu zizkion Monreal irakasleari 1200. urtean Gaztelako domeinupean kokatu ziren lurraldeen justizia-antolakuntzaren berri emateak. Izan ere, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak esparru ezberdin eta anitzak agertzen zituzten une horretan: errealengoak, jaurerriak, udalerriak —hauek kopuru gero eta handiagoan—. Hitz batean, aniztasun jurisdikzionala zen nagusi.

Jurisdikzioa irizpidetzat hartuz, Monrealek zuzen eta zehazki azaldu zuen lurralde hauetan jurisdikzioak, hain anitz eta ezberdina izaki, nola hartu zuen lurralde bakoitzean jantzi eta itxura homogeenagoa, komunitate bakoitzean alor jurisdikzional propioak sendotu zirenean. Giza-taldea, lurraldea eta dagokion sendotasun jurisdikzionala baturik egotea lortu ahal izateko, hiri bilduen sorrera eta eredu urbanoa prozesu horren giltzarri izan ziren: bizitza-gune trinkoak, norberaren forudunak eta esparru jurisdikzional helduak, non auziak bertako epaileek erabakitzen baitzituzten (epaile “naturalek”). Batasun eragile erabakiorrak izan ziren Hermandadeak. Gudu feudalak gaintze-bidean, bakeak eta berdintasun sozialak, aipaturiko faktoreen laguntzaz, baldintza aldekoak izan zituzten. Horrela, XIV. mendearen azkenaldera, hiru lurralde hauetan bakoitzaren Batzarrak modu nahiko arruntean egiten ziren, potestate jurisdikzional zentralaren jabe diren organoak (diputazioak) sortu zituztelarik. Erregearen ordezkariaren (korregidore) parte-hartzeak multzo instituzional hauen funtzionamendu armoniazkoa eta orekatuagoa bermatzen zuen. Jutzizian, mailak finkatu ziren (lehenengoa munizipala edo tokikoa, bigarrena korregidorea). Monrealek lurralde bakoitzeko ezauzgarri bereziak azpimarratu zituen, Bizkaikoak bereziki, bertan jurisdikzio berarizkoa besteetan baino modu aberatsagoan gauzatu baitzen. Jaurerriak kanpo ere, Valladolideko Chanzillerian —Juez Mayor eta Bizkaiko Gela direlakoekin— bizkaitarrek beren jurisdikzioak eta ordenamenduak gozatzeko aukera zuten (1452tik aurrera testu idatziaren arabera).

Hain hazkunde eta sendotasun jurisdikzional berezia izan zen hau, Gaztelako Koroaren lurralde bezala egokitu zitzairen. Ez zuen Monrealek aipatu gabe utzi hau dena Gaztelako beste tokietan kontrako norabidean zegoenean gertatu izana, alegia, jurisdikzio propioaren jabe izatea galtzaile ateratzen ari zenean, errege-jurisdikzio batutzailearen eraginez. Nagusitasun jurisdikzionala, euskal lurralde hauetan, goraka egitearen poderioz, alor prozesalean nabaritu zen. Honen aurpegi emankorra, azken batean, pertsonen berme eta segurtasunetan ikusten dugu, zeren eta epai-prozesu batean murgiltzen denean behar baititu bereziki pertsona horrek berme eta babesok. Irizpide akusatarioa nagusi izatea prozesuaren hasieran, epaile naturala lehen instantzian —horregatik hain sarri korregidorea lehen instantzian sartzearen aurkako ahaleginak— eta ahal zela auzia esparru horretatik ez ateratzea, torturaren debekua, eta horrelako beste arau bermatzaileek, prozesuaren heldutasuna azaltzen digute.

Ezinbestekoa zen foraltasunak, aniztasun jurisdikzionallean oinarritzen zenez, konstituzionalismoak zekarren batasun jurisdikzionalarekin topo egitea. Batasun konstituzionalak Auzitegi Gorenak eraikitzea eskatzen zuen (1834-1835) eta, beheko mailan berriz, barruti jurisdikzional berriak (partidos judiciales) eta lehen instantziako epaileak. Audientzia edo Entzutegiak berritzean, Bizkaiko Gela kendu egin zuten Valladolideko Chanzillerian. Vaskongadetako hiru hiriburuetan partidu judizialak eskatu zituzten liberalek. Esparterok, foraltasunaren aurkako bere 1841eko urriaren 29an hartutako erabakian, justiziaren administrazioan eragin batutzailea gauzatu nahi izan zuen. Nafarroari dagokionez, lortu egin zen helburu hori (1841eko abuztuaren 16ko Legeak 2, 3 eta 4. artikuluetan dioenaren arabera). Justizia foralak amaitzean agertzen ziren, Espainian epaileen independentzia eta mugiezintasuna, Zuzenbide-estatuak eskatzen zituen bermeak nekez eta astiro gauzatzen ari zirenean. Justiziaren aldaketa hauek guztiz premiazkoak izanik, baita ere alor foralean, batasunaren ildo jarraitu beharra nagusitu zitzaion sistema foralari, elkar-tze, sintesi edo konpatibilitaterako bideak nahikoa estaliak gertatu zirelarik.

Kronikaren egilea: Jon ARRIETA ALBERDI  
Zuzenbidearen Historiako irakaslea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

# Elkarrizketa

Gregorio MONREAL ZIA

Historiako katedraduna  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



## 1.

**Zure hitzaldian “Mendebaldeko Baskonia” izendapena erabili duzu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoak aipatzeko. Zer dela-eta?**

Lehenik eta behin esan behar da izendapen guztiak konbentzionalak direla, eta bigarren, honako hau elkarte zientifikoak onartutakoa dela. Munduko edozein entziklopediak darabil Baskonia moduko izenen bat lurralde horiek izendatzeko; Espasa entziklopediaren lehen ediziotik britainiarrenaino. Eta, jakina, Mendebaldean dauden hiru probintziei buruz mintzo baldin banaiz, Mendebaldeko Baskonia izendapena erabiliko dut.

Gainera, badu tradizioz gure artean ere; ez da nazioarteko elkarte zientifikoak duela gutxi adostutako hitz bat. Tradizio erromatarra du, bisigotikoa, eta zenbaitetan Erdi Aroan ere azaldu zen. Gerora, D'Oihenart bezalako idazleek goi mailan jaso zuten —*Las dos Vasconias* izenburua ipini zion bere obrari—, eta Aita Moretek arrakasta handiz errekerperatu zuen. Mitxelenak, Caro Barojak eta Aita Vizcarrok ere erabili zuten.

## 2.

**Jakin badakigu gaur eguneko “jurisdikzio” edo eskumena zer den, baina gauza bera al zen Erdi Aroan?**

Erdi Aroan ez zen “jurisdikzio” hitza erabiltzen; beraz, guk eman nahi diogun zentzua izango du. Errealitate politikoaren teorizatzaileek Zuzenbidea aplikatzeko ahalmenari ematen diote izen hori. Goiz Erdi Aroan Erregea zen epailea, eta Zuzenbidea gizartean zegoen, ohitura moduan.

## 3.

**Zeintzuk dira Erdi Aroan Nafarroako eta Mendebaldeko Baskoniako Justiziaren Administrazioaren artean aurki daitezkeen desberdintasun nagusiak?**

Goiz Erdi Aroa eta Berant Erdi Aroa bereiztu beharko genituzke. Goiz Erdi Aroan batasun politiko bat osatzen zuten bitartean, Berant Erdi Aroan agerikoa zen euren arteko desberdintasuna, Erreinu desberdinen baitan baitzeuden. Nafarroa Erreinu autonomoa zen, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Gaztelaren menpe zeuden.

Nolanahi ere, Goiz Erdi Aroan garrantzi gehiena daukan bereizketa ez da Nafarroaren eta Mendebaldeko Baskoniaren artekoa, Mendebaldeko eta Ekialdeko Baskoniaren artekoa baizik. Gipuzkoa Nafarroaren baitan zegoen. Nafarroan edukitzen sistema zegoen, eta mendebaldean, aldiz (Bizkaia, Durango, Oñati, Aiara eta Araban), jaurerri jurisdikziodunak, Erdi Aroan penintsularen gainerakoan zeuden jaurerriekiko erabat desberdinak. Horixe da Nafarroa-Gipuzkoa eta gainerako lurraldeen artean egin beharreko bereizketa.

Berant Erdi Aroko desberdintasunik aipagarriena zen lurralde hauek batasun politiko desberdinei zegozkiena. Elkarrekiko bilakaera desberdinegia izan ez bazuten ere, baziren hor zenbait desberdintasun.



## 4.

### **Mendebaldeko Baskoniako Justizia Administrazioari dagokionez, zein Zuzenbide aplikatzen zuten epaileek Goiz Erdi Aroan?**

Herriko Zuzenbidea. Ez Zuzenbide jasorik, ez Zuzenbide erromatarretik eratorritako Zuzenbide jantzirik, herriaren ohiturei zegokiena baizik.

## 5.

### **Erdi Aroaren amaieran, Gaztelako Errege-erreginek udalen jurisdikzioa berreskuratu zuten, lehenengo instantzia korrejidoreen esku utziz. Zergatik salbuetsi ziren Mendebaldeko Baskoniako hiru lurralde historikoak prozesu honetatik?**

Galdera ez da zuzena. Izan ere, XI. mendeaz geroztik, udalei, sortu ahala, jurisdikzioa ere ematen zitzairen, eta XIV. mendean Errege-erreginak zentralizatzen hastean, korrejidoreen irudia sortu zuten, zeregin politiko, gobernatio eta judizialak esleituz. Monarkiak udaletan izan zuen esku-hartze horretan, jurisdikzioa berreskuratzen saiatu ziren korrejidoreak.

Zergatik ez zen hori euskal lurralde historikoetan jazo? Ez daukagu hori jakiterik. Dakiguna da, ohitura desberdinak izatearen ondorioz nahiko talde desberdinak zeudela.

## 6.

### **Zein lotura dago Foru Zuzenbidearen finkapenaren eta Gaztelako Justizia Administrazioaren artean?**

Kontua da hemen jarraitasuna dagoela, Gaztelan aldaketak ematen diren bitartean. Gaztelan XIII. mendean sartu zen Erregearen Zuzenbidea. Alfontso X eta Alfonso XI.ak ahalegin handiak egin zituzten Gaztelan Zuzenbide komun desberdin bat sartzeko, Foru Errealaren eta Partiden bidez, bereziki. Gaztela da gauzak aldatu nahi dituen. Gainerako lurraldeak, aldiz, askoz ere kontserbadoreagoa denez, berezko Zuzenbidea gorde nahi du, Bizkaiak adibidez. Beste leku batzuetan, Erregeak, udalak sortzearekin batera, bere Zuzenbidea inposatzen du; horixe gertatu zen Gipuzkoan, Bizkaiko udaletan eta Araban.

Baina bi gauza bereiztu behar dira: batetik, Erregearen Zuzenbideari onarpen formala ematea, eta, bestetik, aurreko Zuzenbidea jaso, idatzi eta Erregeak baiezkota ematea. Dialektika bat sortu zen gizartean bizirik zirauen Zuzenbidearen eta Erregeak inposatutakoaren artean, Estatuan egon eta udal izendatzeagatik.

## 7.

### **Berant Erdi Aroan, Bizkaiak Zuzenbide propioa sortu zuen, Foru sistema indartzen joan ahala. Erregearen Justiziak (korrejidoreak) izan zuen esku-hartze txikia ikusita, ba al dago Bizkaiak Justiziaren Administrazio propioa izan zuela esaterik?**

Gaztelan, korrejidoreen esku zegoen Justiziako lehen instantzia, bigarrena Entzutegien esku, eta hirugarrena Kontseilu Errealaren esku. Oso azkar sortu ziren hiru instantzia hauek. Baina Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko udaletan alkateen esku jarraitu zuen lehenengo instantziak. Hortik aurrera, desberdinak ziren gauzak: Bizkaiko Lautadan korrejidore eta diputatuena zen bigarren instantzia, eta hirugarrena hein batean Gaztelarena zen, Valladolidedeko Entzutegiaren esku baitzegoen; izan ere, Entzutegi horretan Bizkairako areto berezi bat sortu zen, Epaile nagusia egoten zenekoa.



Gipuzkoari dagokionez, lehen instantzia udalena zen, eta bigarrena Gipuzkoako korrejidorearena. Arabaren kasua konplexuagoa zen, lehen instantzia berdina izan arren —hau da, alkateena—, bigarrenean gaztelar sistema sartu zelako, gai penal eta administrazioarekiko auzietan izan ezik. Ezaugarri nagusia, beraz, Gaztelako sistema judizialaren aldean zeukaten aniztasuna da.

## 8.

**Zeure hitzaldian gogorarazi duzun bezala, Lautadako bizkaitarrek beren Zuzenbide tradizionala jaso zuten 1452ko eta 1526ko idatzietan. Baina bi testuotako arauak hiribilduetan ere aplikatu ziren, Foruak hala agintzen zuen-eta. Zein Zuzenbide aplikatzen zuten Erregearen Zuzenbidea zegoen udaletako alkateek: Foruetan jasotakoa ala Zuzenbide orokorra? Nola jakin liteke?**

Badira Zuzenbidearen aplikazioari buruzko zenbait agiri, epaiak esaterako. Hirien kasuan, bigarren instantzian Valladolideko Epaille nagusiarengana jotzen zen zuzenean. Simancas-eko Artxiboan dauden ehundaka prozesuak aztertu behar dira epaileak prozesuak nola bideratzen zituen ikusteko. Deustuko Unibertsitatean honen inguruko ikerketa bat egiten ari dira Itziar Monasterio irakaslearen zuzendaritzapean. Hori da prozeduran zehar zein Zuzenbide aplikatzen zuten jakiteko daukagun bide bakarra.

## 9.

**Zenbateko presentzia zeukan euskarak Erdi Aroko eta Aro Modernoko prozeduretan?**

Ez dut uste horri buruz ezer dakigunik. Erdi Aroa arte ez ziren hasi prozedurak agirietan jasotzen, eta hizkuntza bakar batean egiten zuten hori: gaztelaraz. Baina ziur nago ahozko jarduerak euskaraz egiten zituztela. Biltzarretan bertan bada honen testigantzarik: akta guztiak gaztelaraz dauden arren —XIX. mendeko salbuespenen bat izan ezik—, maiz esaten da korrejidorearen hitzaldia itzulita dagoela; beraz, euskara erabiltzen zen jardura politikoan, eta nik uste dut judizialean ere erabiltzen zela. Hala ere, hipotesi bat besterik ez da.

Kontua da XIII. mendean, legegintzan hizkuntza arruntak erabiltzen hasitakoan, latinetik eratorritako hizkuntzak bakarrik erabiltzen zirela Justiziaren, Notaritzaren eta Erregistroen arloetan, Europa Zentraleko leku askotan hizkuntza arruntek ez zutelako Aro Modernora arte ofizialtasunik eskuratu. Latina zen ofizial izan zitekeen bakarra. Errenazimentu garaian, ostera, aldatu egin zen hizkuntza arruntekiko ikuspegia. Euskararen kasuan, aipatzekoa da Nafarroako Juanak (Enrique II. ren alabak) ofizializatzeke egindako ahalgina, Leizarragaren Biblia itzultzerakoan, baina garai hartan oso ahula zen Nafarroa.

## 10.

**Bizkaiko Foru Zaharrea jasotzen diren auzipetuen eskubideen bermeak aipatu dituzu zure hitzaldian. Gaztelan ere ba al zen halakorik? Eta Europar beste inon?**

Nobleen Zuzenbidea izanik, gizarte estamentudunetan (Gaztela, Frantzia...) pribilegioak aurreikuspen zitzaizkien prozedurari eta eskubideei zegokienez. Hemen gehienak nobleak ziren, baina gainerako lekuetan oso gutxi ziren maila hori zeukatenak. Beraz, horra hori Gaztela, Frantzia eta beste herrialde europar guztiekiko desberdintasun handi bat.

Beste zenbait lekutan bazeuden prozedurazko aurreikuspen bermatzaile isolatu batzuk ere, baina ez hemen bezainbeste. Hemengo berezitasuna aurreikuspen hauen guztien kopurua, indarra eta iraupena zen, eta bermeak herritar guztiei aplikatzen zitzaizkiela. Horretan ez zegoen parekorik. Tira, inoiz edo behin ikusi dut Ingalaterrari egiten zaion aipamena. Ingalaterrak oso bilakaera bitxia izan du 1215eko Karta Magnaz geroztik, pixkanaka Erregeari kendutako jurisdikzioak jasoko dituen, eraentza parlamentarioa bilakatu arte.

Oso garrantzitsua da berme eta eskubideen errealitate hori, baina, zoritxarrez, oso gaizki aztertu da, eta gainera ez da ikuspegi konparatu batetik egin. Sakonean ezagutu beharra dago Zuzenbide konparatua horrelako ikerketa handi bat egiteko.

# 11.

**González Alonso irakasleak Justiziaren Administrazioak Gaztelan izandako garapena aztertu du. Jurisdikzio bakarraren ideia Gaztelan sortu zen XIII. mendean, seihun urte geroago kodeak, jurisdikzio bakarra eta botereen banaketa dauzkagula. Mendebaldeko Baskonian, ostera, ez zen hala gertatu, hemengo jurisdikzioak sendotu egin baitziren Foru sistemarekin. Ados al zaude ikuspegi horrekin?**

Jurisdikzio arrunta eta jurisdikzio propioa bereiztu behar dira, jurisdikzio propioa arrunta izan baitaiteke. Gaztelan, Eraentza Zaharra zegoen beste leku guztietan bezala, Erregeak sustatutako jurisdikzio arruntaz gain, bazeuden estamentuekin lotutako beste batzuk ere: nobleziarena, Elizarena, Inkisizioarena, merkataritzakoa, militarra, unibertsitatekoa... Jurisdikzio andana zegoen. Iraultza, aniztasun horren aurka zegoen, eta Foru bakar bat aldarrikatzen zuten, jurisdikzio arrunt bateratu bat. Horixe zen hain zuzen ere Frantses Iraultzaren asmoa: gizarte estamentuduna, jurisdikzio aniztuna, deuseztatzea.

Hemen, ordea, bestelakoa zen egoera, jurisdikzio lurraldetar desberdina zegoelako. Jurisdikzio propioa hein batean arrunta ere bada; ez Nafarroan bezala, beste Erresuma bat izaki, 1841era arte oso-osorik gorde baitzuen bere jurisdikzioa. Horixe izan zen Foruen Erreformaren lorpenetako bat: Estatuko jurisdikzioa Nafarroara ere zabaltzea, honek bere jurisdikzio propioa zeukanean.

# 12.

**Foruen eraispena eta 1841eko Esparteroren Dekretua aurrerapen gisa ikusi ziren, Foru sistema konplexuaren zaharkitzapen eta zurruntasunaren aurrean. Hala egin zuten behintzat liberalek. Zein zen foralisten alternatiba?**

Hasteko, ezin ditut “zaharkitzapen” eta “zurruntasun” hitzak onartu. Eta bigarren, ez dut jendearen aldetiko kezarik aurkitu Foru sistema judicialaren funtzionamenduaren inguruan.

Zera esan zuten Luzuriaga diputatu donostiarrak, Gorteetan urriaren 25eko Legea eztabaidatzen ari zirela: Justizia konstituzionala foru lurraldean aplikatzeak ez zuela arazorik sortuko, hiriburuetan jada aplikatzen zela, eta ongi zebilelako. Justizia berritzeko zenbait xedapen onartu ziren, baina herrietan aurka zegoen jendea.

Sekula ez dut foru Justiziaren funtzionamenduari buruzko keza bat bera ere aurkitu, baina bai, aldiz, Estatuko jurisdikzioa aplikatzearen ingurukoak.

Foralisten alternatiba zein zen? Bi interpretazio daude foralitatearen inguruan: erakunde zehatz batzuren batura gisa, edo autoxedapen eta aldaketarako gaitasun gisa. Aldaketarako joera handia zegoen. Esaterako, Nafarroako 1818ko eta 1828ko Gorteak oso berritzaileak izan ziren, arlo guztietan. Hemengo Batzar Nagusiak berritzaileak izan ziren. Kontua da herrialdearen estatusa ez zegoela oso garbi, eta zenbait neurri Gaztelako Kontseilura eraman behar izaten zirela onespina eman ziezaien, baina honek beti oztopatu egiten zituen horrelako ekimen berritzaile guztiak.

XVIII-XIX. mendeetan zehar, Madrilekin muturtuta egon ziren hemengoak. Oso esparru txikia zeukaten berrikuntzak egiteko. Monarkia konstituzionalak Foruei benetako errespetua azaldu izan balie, oso berrikuntza handiak egingo ziratekeen. Erabateko konfidantza daukat herrialde honek berritzeko zeukan gaitasunean, baina ezin izan zuten benetan gauzatu.

# 13.

**Zer diote 1936ko Euskal Estatutuak eta II. Errepublikako Konstituzioak Justiziaren Administrazioari buruzko eskuduntzaren inguruan?**

Bi une izan ziren II. Errepublikan. Lehenengoan, nazioa bera sortzen hasi zen, Madrilen oraindik Konstituziorik ez zegoen-eta. Apirilaren 14ean Monarkiaren gain-behera gertatu eta abenduan II. Errepublikako Konstituzioa



onartu artean, ez zegoen marko konstituzional loteslerik. Eusko Ikaskuntzak, orduan, Estatutu bat prestatu zuen, inongo Konstituzioren pean ez zegoena, eta bertan luze eta zabal arautu zuen Justiziaren arloa, Estatutua Konstituzioan gehigarri gisa txertatuko zela pentsatzen baitzuen. Auzitegi Goren bat, bi Entzutegi lurraldetar (bata Bilbon, bestea Iruñan) eta erabat euskalduna izango zatekeen Magistratura bat aurreikusi zituen. Herriari bere nahia adierazten uzten zaionean, oso sistema interesgarria sortzen du.

Gestoreek 1932ko Estatutua prestatzerako jada bazen Konstituziorik; beraz, Estatutuak bertan ezarritako sistema judizialera egokitu egin beharra zeukan. Gauza bera gertatu zen 1936ko Estatutuarekin: kataluniarra kopiatu zuen.

## 14.

### **Senatari izan zinen trantsizio garaian. Gernikako Estatutuari dagokionez, ez dirudi Justiziaren Administrazio propio bat edukitzearren gehiegi tematu zenik.**

Nire ustez, trantsizio garaiko politikariek beste lehentasun batzuk zeuzkaten, Justizia baino askoz ere garrantzitsuagoak iruditzen zitzaizkienak: fiskalitatea, ogasun propioa, hizkuntza, Legebiltzarra, Gobernua, herrialdearen barne egitura... Lehentasun kontua zen.

Euskal Legebiltzarkideen Biltzarreko lehenengo idazkian, negoziazioen ostean lortutakoan baino askoz ere maila autonomiko handiagoa eman zitzaion Justiziarri, tarte horretan Estatuko Magistraturak esku hartu zuelako. Suárezek presioak izan zituen Justizia Ministerioaren, Auzitegi Goreneko kideen, alderdiko Prozedura Zuzenbideko katedradunen aldetik, eta abar, eta horrek guztiak eragin argia izan zuen negoziazioetan.

Justiziaren gaia beti izan da oso erabakiorra, Estatuko kidegoek daukaten indarra dela-eta. Estatu konstituzional bateratuaren sinbologian, Justiziaren gaia sakratua da. Nire ustez horrexegatik da hain zaila ikuspuntu autonomikotik Justiziaren aldarrikapena.

## 15.

### **Eusko Jaurlaritzaren egitarauko puntuetako bat Justizia Administrazio propioa aldarrikatzeari eskaintzen zaio, oinarri gisa eskubide historikoak babesten dituen Konstituzioko 1. Xedapen Gehigarria hartuz. Justizia Administrazio propioa eduki dugula kontuan hartuz, posible izango al litzateke EAEn Justizia deszentralizatu bat edukitzea, aipatutako xedapenean eta Gernikako Estatutuan oinarrituz?**

Hori borondate politikoen eta eskubide historikoak interpretatzeko moduaren esku dago. Zer dira eskubide historikoak: erakundeen multzo bat ala herria eraikitzeako printzipio baten aitortpena? Foralitatea interpretatzeko bi modu dira, eta nik konfidantza handia dut bigarrenean; hori izan da behintzat gure kultura politikoa, gure arbasoek pentsatzen zutena.

## 16.

### **Duela gutxi kaleratutako liburu batean, puri-purian dagoen ideia baten inguruko hausnarketa egin du HOBSEAW/Mek<sup>1</sup>, hots, Estatuak sistema politiko gisa bizi duen krisiari buruz. Autore honen ustez, ahultzen hasi da Aro Modernoaz geroztik mundua Estatuetan antolatzen bultzatu zuen indarra. Hiritarrak lehen baino gehiago kezkatzen dira Estatuak bereganatuta dauzkan zenbait eskuduntzen inguruan: epaitzeko daukan legitimitatea, indarraren monopolioa, nazioarteko politikak... Zein da zure iritzia?**

Puntu bateraino bakarrik onartzen dut hipotesi hori. Nire ustez Estatuak sekulako indarra dauka funtsezkoak diren hiru arlotan; inoiz eduki duen handiena: batetik, komunikabideetan eta hezkuntzan. Gizarte honek hiritarren adimena egituratzen du, beste inolako garaitan gertatu ez den moduan. Bestetik, Estatuaren Aurrekontu Orokorraz eta

1. HOBSEAWM, Eric J. *Entrevista sobre el siglo XXI*, Bartzelona: Crítica, 2000.

Gizarte Segurantzaren aurrekontuaz baliatuz, hiritarren sakela ere kontrolatzen du Estatuak. Errenta birbanatzeaz arduratzen da, batzuei kendu eta besteei emanez, eta botere hori egundokoa da, aparta. Eta, azkenik, gaur-gaurkoz Estatuak da nazioarteko harremanak izan ditzakeen subjektu bakarra, eta hori ere ez da txantxetakoa.

Honekin ez dut esan nahi Estatuak eduki beharra dagoenik. Baina ez da egia globalizazioak Estatuak desegiten duenik, edo hiritarrek Estatuari garrantzirik ematen ez diotenik, oso garrantzitsua delako, beste garaietan baino askoz ere gehiago. Berriz diot: honek ez du esan nahi derrigorrean Estatuak aldarrikatu behar denik; gainera, gizartearen hein handi batek Estatuak izateko xedea baldin badauka eta beste batek ez, argi dago ezer lortzekotan kohesio eta bakea hautsi beharko direla. Federalismo asimetrikoa beharko genuke beharbada, gizarteak eta xede desberdinak zapal ez daitezken, eta hori Justizia nahiko gai zabala izan liteke.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta  
Itzultzailea: Koro Garmendia

